

/2022 FORU DEKRETUA, aren (e)koa, telelanaren bidezko urrutiko zerbitzu-ematea arautzen duena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzat.

ZIOEN AZALPENA

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien bilakaerak aurrerapen asko eta handiak ekarri ditu, besteak beste lanaren antolaketa beste modu batez gauzatu ahal izatea. Modu berri horren arabera, ez da beharrezkoa langilea lantokian egotea. Antolaketa horren oinarria enplegatzailearen eta bere zerbitzuko langileen arteko konfiantza da.

Antolaketa modu berri horrek errazten ahal du familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea, baita baliabideen kudeaketa jasangarriagoa izatea ere; gainera, ingurumena babesten du.

Hori guztia aintzat hartuta, gure inguruko botere publikoek hainbat neurri hartu dituzte telelana bultzatzeko. Horien artean, nabarmentzekoa da Telelanari buruzko Europako Esparru-akordioa, 2002ko uztailaren 16an izenpetu zena. Akordio hori funtsezkoa da lan ez presentziala bultzatzeko garaian. Bere xedea da Europa osorako esparru orokor bat prestatzea, telelanean ari diren langileen lan-baldintzak ezarriko dituen. Esparru horretan, bat etorritako dira malgutasuna eta segurtasuna, bai enpresarientzat eta bai langileentzat beharrezkoak baitira. Esparru horretan, telelana hainbat printzipioren arabera arautuko da. Printzipio horietako bi hauek dira: lehena, telelana borondatezkoa eta

itzulgarria da; bigarrena, telelanean ari diren langileek gainerako langileek dituzten eskubide berberak dituzte.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua arabera, Nafarroak, bere foru araubidearengatik, eskumen osoa du Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gainean, Estatuko oinarritzko legediak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz. Bestalde, aipatu 13/1982 Lege Organikoaren 23. artikulua Nafarroako Gobernuari ematen dio erregelamendu-funtzioa, eta aipatzen du Nafarroako Gobernuak ematen dituen xedapen orokorrak foru dekretu izanen direla.

Otsailaren 7ko 6/2019 Foru Legeak hogeita bigarren xedapen gehigarria gehitu zion Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuari. Xedapen horrek ezartzen du ekintza batzuk finkatu behar direla, Nafarroako administrazio publikoen eremuan, lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiakoaren uztartze eta erantzukidetasunaren aldeko neurri batzuk jartzeko behar direnak, hain zuzen, eta, neurri horien artean, telelana dago sektore batzuetarako, zeinetan bateragarria baita zerbitzuak ematea eta lantokietan fisikoki egon gabe lanaldia betetzea.

Beste alde batetik, COVID-19aren agerraldiak sortu duen larrialdi egoeran (izan ere, Osasunaren Mundu Erakundeko zuzendari nagusiak pandemiaren mailara igo zuen 2020ko martxoaren 11n), Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren martxoaren 12ko 47/2020 Foru Agindua eman zen, zeinaren bidez baimena ematen baita COVID-19a dela-eta neurri

batzuk hartzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen menpeko lantokietan. Neurri horien artean, aurreikusten da lan ez presentzialaren modalitatea ezartzea behar den bezala justifikatzen diren kasuetan; eta hori, COVID-19aren barreiatzea oztopatzen laguntzen ahal duen aparteko neurria delako.

Geroago, maiatzaren 14ko 59/2020 Foru Aginduaren bidez, arautu zen nola itzuli behar ziren, gutxinaka, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile publikoak lan presentziala egitera lantokietan, Normaltasun berrirako trantsizio planaren esparruan, betiere kontuan hartuz neurriak egokitu beharko zaizkiola krisiaren bilakaerari. Foru agindu honek ezartzen du, bere printzipio orokorren artean, presentziala ez den lan moduak lehenestea, telelana ere barne, eta ezartzen du ezen, indarrean dagoen bitartean, lan presentziala eta ez presentziala elkarrekin garatuko direla, langile publikoen osasuna eta segurtasuna bermatzeko neurria denez.

Telelana langile askori ezarri izanak, aipatu foru aginduek adierazten zutenari men eginez, posible egin du zerbitzu publikoak behar den eraginkortasunarekin ematen jarraitzea, salbuespenezko egoera baten erdian. Hori horrela, sortu den larrialdi egoeran ongi agerian geratu da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen prestasuna eta erantzukizuna. Administrazioak, bere aldetik, argi erakutsi du bere langileengan duen konfiantza. Batari zein besteari esker, zerbitzu publikoak eraginkortasunez eman dira aipatu salbuespenezko egoeran.

Esperientzia pilotu hori, zeinean oraindik murgilduta baikaude, aurrekari bat da, orientatzen duena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen zerbitzu-emate ez presentziala nola arautu behar den. Modu horretan gauzatzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren hogeita bigarren xedapen gehigarriak daukan agindua.

Foru dekretu honen edukia negoziatu egin da sindikatuekin Mahai Orokorrean, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 83.6.h eta m artikuluekin bat etorritik (Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua). Izan ere, bertan ezartzen denak ukitzen ditu lanaldia eta ordutegia, eta, hitz batez, langileen lan baldintzak.

Nafarroako Kontseiluak, egunean egindako bileran, aldeko irizpena eman dio foru dekretu honi, uste duelako bere edukia ordenamendu juridikoarekin lerratzen dela.

Horrenbestez, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluarekin bat etorritik, eta Nafarroako Gobernuak 20..(e)koaren(e)ko bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da telelanaren bidezko urrutiko zerbitzu-ematea arautzea, Nafarroako Foru Komunitateko

Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzat.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Foru dekretu hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile guztiei, beren araubide juridikoa edozein delarik ere, baldin eta telelanaren modalitatearen bidez garatzen ahal den lanpostu bat betetzen badu, foru dekretu honetan bertan ezartzen denari jarraikiz.

2. Hauek denak aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:

a) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren mendeko egoitza-zentroei atxikiriko zuzeneko arretako osasun eta laguntza langileak.

b) Foruzaingoari atxikiriko langileak, 5.1.c) artikuluan aipatzen diren funtzioak baizik egiten ez dituztenen salbuespenarekin.

c) Hezkuntza Departamentuari atxikiriko unibertsitateaz kanpoko irakasleak eta laguntza-irakasleak, zerbitzuak ematen dituztenean Hezkuntza Departamentuari atxikitako ikastetxeetan.

d) Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuari eta Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuari atxikiriko langileak, 5.1.c) artikuluan aipatzen diren funtzioak baizik egiten ez dituztenen salbuespenarekin.

e) Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak, aplikatzekoa zaion araudiarekin arautuko dena.

3. artikulua. Telelanaren kontzeptua eta xedea.

1. Telelana urrutiko zerbitzu-ematearen modalitatea da. Haren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek beren lanpostuei dagozkien eginkizunak betetzen dituzte Administrazioaren egoitzetatik kanpo, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliz.

2. Telelanaren xedea da lan-gogobetetasunaren maila igotzea, lana antolatuz teknologia berrien erabileraren bidez. Horrek eraginkortasun handiagoa eragiten du zerbitzuen prestakuntzan.

4. artikulua. Zerbitzu-ematearen araubidea telelanaren modalitatean.

1. Zerbitzu-ematearen modalitate hau borondatezkoa izanen da modalitatearen aplikazio-eremuko langileentzat. Laneko arriskuen prebentzioan, pribatutasunean eta datuen babesa eta konfidentziasunean exijitzen diren baldintzak bermatuko dira. Telelana itzulgarria da, eta langileak edozein unetan eskatzen ahal du modalitate presentzialera itzultzea.

2. Beren eginkizunak telelanaren modalitatean garatzen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek, foru dekretu honek ezartzen duen bezala, administrazioaren zerbitzuko gainerako langileek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak edukiko dituzte. Bereziki, lan-karga eta jardueraren emaitza neurtzeko irizpideak kasuan kasuko unitatean era presentzialean lan egiten duten langileen berberak izanen dira.

Hauek dira telelanean ari diren langileek dauzkaten eskubide berariazkoak:

a) Intimitaterako eta gailu digitalak erabiltzeko eskubidea lan eremuan. Horretarako, administrazioak ezarriko ditu gailu digitalak erabiltzeko irizpideak intimitatea babesteko estandarrak zainduz, erabilera sozialarekin eta Konstituzioak zein legeek aitortzen dituzten eskubideekin bat.

b) Deskonexio digitalerako eskubidea, lan eremuan.

c) Intimitaterako eskubidea irudia eta soinua grabatzeko gailuen erabileraren aurrean, lantokian.

d) Intimitaterako eskubidea geolokalizazio-sistemen aurrean lan eremuan.

e) Telelanean prestatzeko eskubidea.

f) Atsedenerako eta ezarritako lanaldia ez gainditzeko eskubidea.

Era berean, hauek dira telelanean ari diren langileek dauzkaten betebeharrak berariazkoak:

a) Administrazioak ematen dituen gailuak, halakorik denean, egoki erabiltzea.

b) Legez ezarritako lanaldia betetzea.

c) Emandako lana egoki eta arduraz egitea.

d) Lanaldian zehar aurkitzeko moduan egotea, telematikoki edo telefonoaren bidez.

e) Nahitaezkotzat jotzen diren prestakuntza-ikastaroak, presentzialak edo on-line emandakoak, gainditzea.

f) Lan osasuna eta segurtasunaren alorrean indarrean dagoen araudia betetzea, eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak gomendatzen dituen prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak hartzea.

g) Datu pertsonalak babesteari buruzko araudia eta datu horien konfidentziasuna betetzea.

3. Zerbitzu-ematea telelanaren modalitatean egiten duten langileek ez dute aldaketarik izanen beren ordainsarrietan, eta ez dituzte ukiturik ikusiko beren promozio profesionalerako edo prestakuntzarako aukerak, ez eta gainerako langileek aitortuta daukaten beste edozein eskubide ere.

4. Telelangilearen izaerak irauten du zerbitzu-ematea telelanaren modalitatean egiteko eman den aldi osoan, eta langileak bere lanpostua modalitate horretan garatzen duen bitartean.

5. artikulua. Sartzeko baldintzak.

1. Oro har, zerbitzua urrutitik eta telelanaren modalitatean ematen ahalko dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Zerbitzuak benetan eta etengabe ematearen administrazio edo lan egoeran egotea.

Alabaina, lanpostuaren erreserba daukan edozein egoera administratibotan daudenek eskaera egiten ahalko dute zerbitzu-ematea telelanaren modalitatean egiteko. Kasu horretan, jarduneko zerbitzura itzultzea gertatu behar da zerbitzua telelanaren modalitatean emateko kontzesioaren efektu-data berean.

b) Dagokion unitateko lanpostuaren edukia eta funtzionamendua ezagutzea. Horretarako, exijitzen ahalko da lanpostuaren funtzioak benetan egin izana denen artean gutxienez sei hilabeterainoko iraupena izan duten aldietan, eta hori azken bost urteen barruan.

c) Telelanaren bidez betetzen ahal den lanpostu batean aritzea edo lanpostu horren titularra izatea. Ondorio horietarako,

oro har, modalitate horretan betetzen ahal diren lanpostuak ondoren aipatzen diren funtzioak dituztenak izanen dira:

1. Txostengintza eta aholkularitza teknikoa edo juridikoa.
2. Bitarteko informatikoen bidezko kudeaketa administratiboa.
3. Dokumentuen idazketa, zuzenketa edo tratamendua.
4. Memoriak, txostenak, azterlanak, planak edo proiektuak idaztea edo prestatzea, baita horiek berrikustea, berraztertzea eta analizatzea ere.
5. Arauzko xedapenen edo administrazio-egintza orokorren proiektuen zirriborroak prestatzea.
6. Erregistro informatizatuak gaurkotzea.
7. Informazio eta komunikazio sistemak analizatzea, diseinatzea, programatzea edo kudeatzea.
8. Itzulpengintza.
9. Datuen tratamendu informatikoa.
10. Era autonomoan eta ez presentzialean betetzen ahal den edo administrazio izaerako lan arrunta den beste edozein funtzio.

Hauetako ezaugarriak dituzten lanpostuak betetzen dituzten langileen eskaerak ez dira baimenduko:

1. Jendaurreko zuzeneko arreta presentzialaren funtzioa modu jarraituan esleituta duten lanpostuak, zerbitzuak ematen dituzten ordutegian.
2. Beren funtzioak betetzeko tresna informatikorik behar ez duten lanpostuak.
3. Oro har, funtzioak emateko langilearen presentzia fisikoa lantokian beharrezkoa duten lanpostuak.

d) Dagokion lanpostuaren funtzioak telelanaren modalitatean garatzeko beharrezkoak diren ezagutza informatiko eta telematikoak edukitzea.

e) Eskura izatea sistema informatiko egokiak, definitzen diren ezaugarriekin, zerbitzu-ematea modalitate horretan hasten den egunean.

Honi dagokionez, eta erabilgarritasun teknologikoaren arabera, administrazioak baliabide hauek jarriko ditu:

- Ordenagailu pertsonal eramangarria.
- Telelanaren modalitatean lanpostuaren funtzioak betetzeko beharrezkoak diren tresna ofimatikoak eta zibersegurtasunekoak.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan erabiltzen diren aplikazio informatikoetarako sarbidea, bai eta langilea atxikia dagoen administrazio-unitatean erabiltzen diren aplikazio espezifiketarako sarbidea ere.

Bitarteko horiek ezin izanen dira erabili zerbitzu-ematetik eratorritakoak ez diren helburuetarako.

f) Interneteko konexio egonkorra edukitzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sarean sartzeko.

g) Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren bidez programatzen diren prestakuntza ikastaro nahitaezkoak gainditzea. Ikastaroak presentzialak edo on-line izanen dira, eta zerbitzua telelanaren modalitatean emateari buruzkoak. Ikastaro horiek eskuragarri egonen dira langileentzat modu iraunkorrean Atarian.

h) Telelana eginen den tokian laneko segurtasunari eta osasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzeko konpromisoa hartzea.

i) Zerbitzua era egokian emanen dela bermatzea. Horretarako, dagoeneko baimenduta dauden kontzesioen baldintzak doitzen ahalko dira, baldin eta unitate berean langile batzuek eskatzen badute beren funtzioak telelanaren modalitatearen bidez ematea.

Artikulu honetan ezartzen diren baldintzak bete beharko dira zerbitzua telelanaren modalitatearen bidez ematen den denbora guztian.

6. artikulua. Baimena emateko prozedura.

1. Eskatzailea zer unitateri atxikita dagoen, unitate horren erantzukizuna duen hierarkian goragoko organoari aurkeztuko zaio zerbitzua telelanaren modalitatean emateko baimen-eskaera. Horretarako, administrazioak eredu normalizatuak emanen ditu.

Eskaerarekin batera norberak lan-baldintzak berresteko galde-sorta erantsiko da, behar bezala beteta. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak prestatuko du galde-sorta hori. Galde-sorta horri bertan ezarritako gomendioak beteko direla dioen erantzukizunpeko adierazpen bat gaineratuko zaio, halakorik badago; halaber, adierazpenak ziurtatuko du telelanaren arriskuen prebentzioaren arloan administrazioak eskainitako nahitaezko prestakuntza egin dela.

2. Eskaera jaso eta gero, unitatearen arduradunak baieztatuko du eskatzaileak betetzen ote dituen foru dekretu honetan eskatzen diren baldintza guztiak, eta txosten bat eginen du 20 egun baliioduneko epean. Txostenean aintzat hartuko dira zerbitzuaren beharrak betetzea, errendimendua neurtzeko erabiliko diren irizpideak, eskatzailearen lanpostuan erabiltzen diren tresna informatikoak, eta lanak telelanaren modalitatean garatzeak daukan zailtasuna; halaber, baieztatuko du telefonoaren bidezko arreta

eta, beharrezkoa bada, arreta presentziala ere behar bezala bermaturik gelditzen direla.

Parametro horiek zehazteko, lanpostuak modalitate presentzialean dituen funtzioak hartuko dira aintzat, eta eskatzaileak egiten duen lanaldi-mota.

3. Baldin eta dagokion unitateko pertsona batzuek garatzen badute beren funtzioak telelanaren modalitatearen bidez, edo hala egitea eskatzen badute, zehaztuko da lanaldi presentzialaren eta telelanari dagokion lanaldiaren banaketa, eta beharrezkoak jotzen diren txandakatzeak egiten ahalko dira, zerbitzu publikoa modu eraginkorrean emanen dela bermatzeko.

4. Txostena aldekoa bada, unitatearen arduradunak Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusira bidaliko du, honek tramita ditzan eskatzaileak telelanean aritu ahal izateko behar dituen baimenak.

5. Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusiaren sarrera-berrespena jaso eta gero, eskatzailea atxikita dagoen unitateko arduradunak aldeko txostena, edo aurkako txostena, hala denean, igorriko du departamentuko zuzendaritza nagusira, edo erakunde autonomoko antzeko unitatera, bi hilabeteko epean telelanaren eskaera baimentzen dela edo ukatzen dela dioen ebazpen arrazoitua eman dezan. Ebazpen honek ez du amaituko administrazio bidea, eta kasu guztietan igorri beharko da funtzio publikoaren arloan eskumenak dituen zuzendaritza nagusira, edo dagokion erakunde autonomoko antzeko organora, espediente pertsonalean sartzeko ondorioetarako.

Zuzendaritza nagusi batean sartuta ez dauden unitate organikoen kasuan, edo idazkaritza tekniko nagusietako titularren kasuan, txosten egiteko eta ebazpena emateko eskumena

departamentuko titularrak izanen du. Idazkaritza tekniko nagusi bati atxikitako langileei dagokienez, eskumen hori aipatu idazkaritza horretako titularrak izanen du.

Administrazioak, aipatutako bi hilabeteko epean, ez badu berariaz erabakirik hartzen, ezetsi egin dela ulertuko da.

6. Baimena ematen duen ebazpenean adieraziko da telelanaren hasiera-eguna zein den eta zer epealditan garatuko den, baita lanaldia modalitate honetan garatuko diren egunak ere.

7. Baimena ukatzen duen ebazpenak behar bezala arrazoitua egon behar du, eta foru dekretu honen 8. artikuluan biltzen diren ukatzeko kausaren bat aipatu beharko du.

8. Eskatzaileak lehen ere zerbitzuak eman baditu telelanaren modalitatean, eskaerarekin batera eransten diren txostenek lehen aipatutako prozeduran eman direnak berretsiko dituzte, ez bada aldaketak gertatu direla zerbitzuaren beharrak estaltzeari edo baliabide telematikoei dagokienez.

7. artikulua. Baimena emateko irizpideak.

Lan unitate bereko langile batzuek batera eskatzen badute zerbitzua ematea telelanaren modalitatearen bidez, eta administrazioaren antolaketarengatik ezinezkoa bada guztiei ematea eskatzen dituzten lan ez presentzialeko egunak, txandak egiteko aukerak eta ukitutako langileen eta administrazioaren artean adostasunera iristeko aukerak agortu badira, zozketa-sistema bat ezarriko da, urtero errepikatu beharko dena, adostasunik ez dagoen artean.

8. artikulua. Ukatzeko arrazoiak.

1. Zerbitzua telelanaren modalitatearen bidez emateko baimen-eskaerak ukatzeko, ondoan aipatzen diren arrazoietakoren batek gertatu behar du:

a) Foru dekretu honen 5. artikuluan biltzen diren baldintzak ez betetzea.

b) Eskatzaileak ez aurkeztea foru dekretu honen 6. artikuluan ezartzen den dokumentazioa.

c) Zerbitzuaren beharrak behar bezala beteta ez gelditzea, baldin eta espedientean hori arazoitzen bada.

d) Behar diren azpiegitura teknologikoaren mugak edo euren falta, edo telelana eginen den tokian konexioa ezin bermatzea.

e) Lanpostuaz edo atxikipen-unitateaz aldatzea telelana eskatu eta gero eta baimena jaso baino arinago.

f) Langileak bete ez izana telelanaren aurreko aldiari ezarri ziren helburuak, zeinek lotuta egon beharko baitute foru dekretu honen 6.2 artikuluan ezartzen diren errendimendua neurtzeko irizpideekin, betiere espedientean ongi arazoituta geldituz gero.

g) Enplegatu publikoak ez hartzea Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak gomendatzen dituen prebentzio neurriak.

h) Telelanaren modalitatean zerbitzua emateko beste aldi bat eskatzen den urtea baino lehenagoko urtean zerbitzua telelanaren modalitatean emateko baimena atzera bota izana, foru dekretu honen 10. artikuluan d), e), g) eta h) letretan ezartzen diren arrazoietakoren bat gertatzen delako.

i) Behar den bezala justifikatzen den beste edozein arazoirengatik.

2. c), f) eta i) letretan aipatzen diren baimena ukatzeko arrazoia behar bezala egiaztatuko dira eskatzailea atxikia dagoen organoaren txostenaren bidez, eta d) eta g) letretan aipatutakoak

zerbitzu informatikoen txostenaren eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren txostenaren bidez, hurrenez hurren.

3. 1. apartatuan aipatzen den arrazoietakoren bat gertatzen dela baieztatuz gero, eskumena duen pertsonak, foru dekretu honen 6.5 artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, telelana egiteko baimena ukatzeko ebazpen arrazoitua emanen du, bi hilabeteko epean. Ebazpen honek ez du amaituko administrazio bidea, eta interesdunari zein eskatzailea atxikia den departamentuko idazkaritza tekniko nagusiari jakinarazi behar zaie, eta, kasu guztietan, funtzio publikoaren eskumena duen zuzendaritza nagusiari edo dagokion erakunde autonomoko antzeko organoari, langilearen espedientean sartzeko ondorioetarako.

9. artikulua. Telelanaren baldintzak.

1. Telelanean era jarraituan urtebetez egoten ahal da, baimena ematen duen ebazpenean agertzen den egunetik kontatua. Epealdi hori automatikoki luzagarria izanen da, beste urtebeteko epealdirako.

Epealdia ez da luzatuko baldin eta telelanean aritzea eskatu duten unitateko langile guztiei ezin izan bazaie baimena eman. Hori gertatzen bada, adostasun faltak jarraitzen badu, beste zozketa bat egingen da, urtea amaitzean telelanean aritzeko baimena ematen duten ebazpen berriak onetsi ahal izateko, hurrengo urtean izanen diren baldintzetan.

Baimena ematen bada txanda egiteko akordio bat egon delako, txandak akordioan ezarri den moduan aplikatuko dira, baimen-akordioaren baldintzak eta ukitutako pertsonak mantentzen badira.

2. Telelanean hasteko eta amaitzeko egunak eta zerbitzua telelanaren modalitatean emanen diren egunak zerbitzua modalitate horretan emateko baimena ematen duen ebazpenean zehaztuko dira, telelanean ariko den langilearen eskaera kontuan hartuta.

Hala ere, baldintzak aldatzen ahalko dira, telelanean ari den langilea atxikia dagon unitatea osatzen duten gainerako langileen bertaratzeak, ez bertaratzeak edo oporrak kontuan hartuta, bai eta sor litezkeen beste arrazoi batzuegatik ere, behar bezala justifikatu behar direnak.

3. Oro har, asteko lanaldia honela banatuko da: astean hiru egun, gehienez ere, telelanaren modalitatean emanen dira, eta beste bi egun lan presentzialean. Lanaldia ezin izanen da zatitu bi modalitateetan egiteko.

Salbuespenezko kasuetan, behar bezala justifikatuta eta lanaren antolaketaren arrazoiengatik, telelanaren egunak aste oso batean metatzen ahalko dira. Horrelakoetan, ukitutako langileak hurrengo aste osoa zerbitzua era presentzialean emanen du.

4. Eguneroko lanaldia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen urteko lan-egutegia onartzen duen Lehendakaritza, Berdintasun, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariaren foru aginduan edo hura garatzeko emandako xedapenetan ezartzen dena izanen da.

5. Behar bezala justifikatutako zerbitzuaren beharrak direla medio, eskatzen ahal zaio telelanean ari den langileari lantokira joateko bere zerbitzuak modalitate presentzialean ematen dituen egunetatik kanpo, 24 orduko aurrerapenarekin, gutxienez.

6. Telelanean ari den langileak eskubidea edukiko du aplikatzekoa den araudiko baimenak izateko, modalitate presentzian ari diren langileen modu eta baldintza berberetan.

10. artikulua. Errebokatzea.

1. Zerbitzua telelanaren modalitatean emateko baimena baliorik gabe gelditzen ahal da ondoren aipatzen diren arrazoiengatik:

a) Langileari eragiten dioten eta gerora sortu diren zirkunstantziengatik.

b) Gerora sortutako arrazoiengatik, baimenaren ebazpena arrazoitu zuten baldintzak eta betebeharrak aldatzen dituztenak.

c) Lan zehatzak edo ezarritako helburuak ez betetzeagatik.

d) Telelanean ari den langileak ez hartzeagatik Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak gomendatzen dituen prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak.

e) Behar bezala justifikatutako zerbitzuaren beharregatik.

f) Langileak eman zaion ekipo informatikoa aldatu duelako, dela konfigurazioa aldatuz, dela aplikazioak instalatuz edo elementu periferikoak aldatuz administrazioaren baimenik gabe; edo ekipo informatikoa erabiltzeagatik lanekoak ez diren zereginetan, baita segurtasun informatikoaren eta datu pertsonalen babesaren arloko arauak eta gomendioak ez betetzeagatik ere.

g) Lanaldia ez betetzeagatik.

2. Telelanean ari den langilea atxikita dagoen unitateko arduradunak txosten bat igorriko du dagokion departamentuko zuzendaritza nagusira edo erakunde autonomoko dagokion unitatera, zeinean adieraziko baititu telelanerako baimena errebokatzeko proposamena justifikatzen duten zirkunstantziak. Organo eskudunak

interesdunari 10 eguneko epean entzunaldia eman ondoren, ebazpen arrazoitua emanen du, errebokatzea onetsiz edo ukatuz.

3. 1. apartatuko d), e), g) eta h) letretan ezartzen diren gorabeheretakoren bat gertatzen bada, urtebeteko epean ez da baimenik emanen zerbitzua telelanaren modalitatean emateko.

11. artikulua. Telelana amaitzea eta modalitate presentzialean berriz sartzea.

1. Telelana ondoren aipatzen den gorabeheretakoren bat gertatzen denean amaituko da:

a) Baimena ematen duen ebazpenean jartzen den epea amaitu delako, luzapena egin ez bada.

b) Telelanean ari den langileak lanpostua uzten duelako edo lanpostua aldatzen delako.

c) Zerbitzuak benetan eta etengabe ematearen administrazio edo lan egoeran egoteari uzteagatik.

d) Bi alderdiek adosturik.

e) Telelanean ari den langileak uko egiten diolako, 7 lanegun lehenago jakinarazi eta gero, gutxienez.

f) Telelanean aritzeko baimena errebokatzeagatik, foru dekretu honen 10. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

2. Uko egitea telelanean ari den langilea atxikita dagoen departamentuko zuzendaritza nagusiari edo erakunde autonomoko dagokion unitateari jakinarazi behar zaio, zuzendaritza nagusiak edo unitateak ebazpena eman dezan, telelanaren modalitatean zerbitzua ematea amaitu dela adieraziz. Bertan adieraziko da langilea noiz hasiko den modalitate presentzialean, eta hori jakinaraziko zaio funtzio publikoaren arloan eskumenak dituen

zuzendaritza nagusiari edo dagokion erakunde autonomoko organoari, langilearen espedientean sartzearen ondorioetarako.

3. Zerbitzua telelanaren modalitatean emateko epea amaitu eta gero, telelanean aritu den langilea modalitate presentzialera pasatuko da, inolako etenik gabe.

12. artikulua. Datu pertsonalak babestea.

Telelanean ari den langileak datu pertsonalak babesteari buruzko araudia bete behar du, eta behar den zuhurtzia edukiko du ezagutzen dituen auziei buruz, modalitate presentzialean bere eginkizunak garatzean egiten duen bezala.

13. artikulua. Laneko arriskuen prebentzioa.

1. Telelanean ari den langileak aplikatu behar ditu, kasu guztietan eta bere ardurapean, 6. artikulua aipatzen duen norberak lan-baldintzak berresteko galde-sortan identifikatzen diren prebentzio neurriak, baita telelanaren arriskuen ebaluazioan daudenak ere.

2. Horretarako, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak telelanaren arriskuen ebaluazioa emanen dio telelanean ari den langileari, baita segurtasunari eta lan-osasunari buruzko informazioa eta prestakuntza beharrezkoa ere, laneko arriskuak saihesteko eta minimizatzeko. Halaber, dagokion prebentzio zerbitzuak laguntza eta aholkularitza emanen du, langileak eskatzen duenean.

3. Laneko gertakariei dagokienez, laneko istripuen eta gaixotasunen arloan indarrean dagoen araudia aplikatuko da.

14. artikulua. Prestakuntza.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestakuntza ekintzak antolatuko ditu, gai hauei buruz: zerbitzua telelanaren modalitatean ematea, osasuna babestea eta laneko arriskuen prebentzioa lanpostuan, datu pertsonalak babestea, eta telelanean ari diren langileen errendimendua neurtzeko irizpideak.

Prestakuntza ekintza hauek Atarian egonen dira eskuragarri, modu iraunkorrean.

Lehen xedapen gehigarria. Salbuespenezko nahitaezkotasuna.

Zerbitzua telelanaren bidez ematea borondatezkoa dela alde batera utzi gabe, foru dekretu honen 4.1 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, larrialdi-egoeretan edo salbuespenezko egoeretan, aldi jakin batean etxebizitzan egon beharra ezartzen bada, aldi horretan nahitaez telelanean aritu beharra ezartzen ahalko da, zehazten diren baldintzetan.

Bigarren xedapen gehigarria. Informazioa bidaltzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako langileen batzordeei.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentu edo erakunde autonomo bakoitzak aldiro bidaliko die langileen batzordeei beren eremuan onetsi diren telelanean aritzeko baimenei buruzko informazioa, baita ukatu direnei buruzkoa ere.

Xedapen iragankor bakarra. Baliabide teknologikoak.

Telelanerako sarbidea, foru dekretu honetan ezartzen diren baldintzetan, hurrenez hurren egingen da, zerbitzua telelanaren modalitatean emateko administrazioak beharrezkoak diren baliabide teknologikoak eskaintzeko daukan gaitasunaren arabera.

Hala ere, baliabide faltarik bada, langileek beren borondatez jartzen ahal dituzte, eta telelanean aritzen ahalko dira, baldin eta foru dekretu honen 5. artikuluan ezarritako sartzeko baldintzak betetzen badituzte.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Foru dekretu honek indarra hartu eta hiru hilabetera, telelanean dagokionez, indarririk gabe geldituko da maiatzaren 14ko 59/2020 Foru Agindua, non arautzen baita nola itzuliko diren gutxinaka Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile publikoak modalitate presentzian lan egitera lantokietan, Normaltasun Berrirako Trantsizio Planaren esparruan.

Azken xedapenetako lehena. Foru dekretu hau garatzeko gaikuntza.

Funtzio publikoaren arloan eskuduna den departamentuaren titularra gaitzen da foru dekretu honetan ezartzen den guztia garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

1. Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

2. Foru dekretu honetan aurreikusten diren telelanean aritzeko baimen-eskaerak tramitatzen diren bitartean, eta hiru hilabeteko gehieneko epe batean, aplikatzekoa izanen da maiatzaren 14ko 59/2020 Foru Agindua, non arautzen baita nola itzuliko diren gutxinaka Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile publikoak modalitate presentzian lan egitera lantokietan, Normaltasun Berrirako Trantsizio Planaren esparruan.

Iruñean, 2022ko aren (e)an

LEHENDAKARITZAKO,
BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO
DEPARTAMENTUKO KONTSEILARIA

Javier Remírez Apesteguía